


## AXULAR LIZEOKO GAZTE LEGE BILTZARRA



Proiektuaren izena: GAZTE LEGEBILTZARRA 2019/2020

Laburpen Bideoa: [https://www.youtube.com/watch?v=9ohRbFknLcA&feature=emb\\_logo](https://www.youtube.com/watch?v=9ohRbFknLcA&feature=emb_logo)

Erakundea: Axular Lizeoa

Web Orria: [www.axular.net](http://www.axular.net)

Sare Sozialak:



Axular Lizeoa Kooperatiba Elkartearen [www.axular.eus](http://www.axular.eus) xedea, misioa eta baloreek adierazten duten moduan,

[https://axular.net/download/files/quienes\\_somos/axular\\_mision\\_vision\\_valores.pdf](https://axular.net/download/files/quienes_somos/axular_mision_vision_valores.pdf)

**espiritu zerbitzua** dugu gure eguneroko eginkizunen ezaugarri garrantzitsuenetako bat bezala. Inguruarekiko, hau da, Donostiar gizartearekiko, familia, erakunde eta gure ikasleek bizi duten errealitatearekiko ezinbesteko erantzukizun soziala adierazteko betebeharra dugu.

Eginkizun horri erantzuten jarraitzeko asmoz, 50 urte egiten dugun urte honetan (2019) jaio da **GAZTE LEGEBILTZARRA programa**.

Dokumentazio exekutibo honen helburuetan aurkezten dugun moduan, Axular Lizeoan, horrelako prozedura parte hartzaileak bultzatuz, egunerokoan erabiltzen ditugun beste baliabide pedagogikoen osagarri eta betegarri ezin hobea bihurtu daitezkeela sinisten dugu. Gazteengan landu nahi ditugun konpetentzien garapenerako eta hiritarrek bizitzan zehar garatu behar dituzten konpetentzia hoiek, transbertsalki adierazteko eta beraien esperientzia “oparitzeko” aukera emateko jaio den proiektua dugu hau.

**Herri onurako kooperatiba** izanda, gure erakundeak agertu behar duen giza erantzukizun zentzua adierazi nahi duen proiektua dugu hau.



Gazteen ongizate emozionalean zuzenki eragina duela uste dugu, autoestima, garapen kognitibo eta bestelakoak hobetuz. **GAZTE LEGEBILTZARRA** modu estrukturalen finkatzeko asmoa izanda, beste hezkuntza erakunde, udaletxe eta gure gizartearen ongizaterako lan egiten duten bestelako elkarreentzat, eredu demokratiko, ezagutza eta garapen komunitarioa transmititzeko tresna izanda, horrelako prozesu parte hartzaileak nola sustatu daitezken eredu eta erreferentzia bihurtu nahi dugu proiektua.

Horretarako, proiektuaren inguruko zehaztasun, ondorio eta emaitzak bestelako foro, ekitaldi eta honen inguruan informazio gehiago jaso nahi duten horietara hurbiltzeko prestutasuna adierazten dugu.

Axular Lizeoko GAZTE LEGEBILTZARRA edozein erakunde, ikastetxe edota udalerriko GAZTE BILTZARRA bihurtzeko eta moldatzen laguntzeko laguntza eskaintzen dugu. Horretarako, gure ikasleak lirarteke bide lagun, mentore eta orientatzaileak bestelako euskal gazte ahalduntze bide horretan.

Gizarteari begira gauden ikastola eta erakundea izanda, gure **GAZTE-HIRITAR-  
IKASLEEK** etorkizunari aurre egiteko kritikotasuna, ikuspegi demokratiko eta  
erabakiak hartzeko gaitasun eta konpetentziak garatzen jarrai dezaten  
erantzukizuna dugu.



Egunerokoan, gure erakundeak, lan eta proiektu ezberdinak eramaten ditu aurrera. Beti ere, ikasleen beharrei erantzuten duten proposamenak diseinatuz. Etorkizunean, Gizartean izango ditugun hiritar helduak izango diren hoiengatik, balore demokratikoak jorratzen lagundu dezaketen esperientzia eta ekosistemak sortu behar ditugula konbentziturik gaude.

Horretarako, **Axular Lizeoko GAZTE LEGE BILTZARRA** sortu dugu.

Proiektu honetan, legebiltzar batek izan dezaken oinarrizko funtzionamendua erreplikaturik, gure gazteen parte hartzea bultzatu nahi dugu. Jarrera eta balore osasuntsuak landuz eta bestetik lurraldeak eskaintzen dizkien instituzioak eta bertan egiten den lana ezagutzera emanez.

Gure egitasmoa aurrera eraman nahian, lotura honetan

Laburpen Bideoa:

[https://www.youtube.com/watch?v=9ohRbFknLcA&feature=emb\\_logo](https://www.youtube.com/watch?v=9ohRbFknLcA&feature=emb_logo)

topatuko duzuen bi minutuko bideoan, proiektu honen ildo nagusiak ezagutuko dituzue.

### **Giza balore publikoa:**

Gaur egungo ikasle eta gazteak, inguruan dituzten instituzio eta gobernantza erakundeekiko duten deskonexioari aurre egin nahian, egunerokoan bizi eta beraien bizitzan garrantzitsuak diren gaien inguruan eztabaidatzeko aukera ezin hobea dute ekintza honetan. Beraien gai eta interesetatik abiatuz, gobernantzarantz bideratuko ditugu eta ez alderantziz.

Instituzio organoek duten garrantziaz ikastetxetan ditugun gazteak jabetzeko aukera ezin hobea dela iruditzen zaigu. Horrekin batera, hiritar erantzunkizuna eta ardura garatze nahian, beraien zuzenki hitza emango zaie eztabaidak, ikuspegiak eta erabakiak partekatuz.



### Ahalduntzea:

Gure gazteak Euskal gizarteak dituen erronkekin lerrokatuko ditugu erabakiak hartzeko jarraitu beharreko gobernantza prozesuetaz kontziente eginez. Horrela, adinan aurrera doazen eanean, giza erantzukizun kontzientea garatzeko tresna personal gehiago izango dituztela iruditzen zaigu.

Hau dena, elkar-lanean egingo da, besteen iritzia eta ikuspegiak entzun eta errespetatuz. Negoziaketa eta erabakiak adostuz, eta lankidetzan sustatuz.

Lidertza eta bestelako jarrera pertsonal eta taldekoak garatzeko aukera ezin hobea sustako da.

Komunikazioa konpententzia ere jorratu eta landuko da publikoki ideien defentsa eginez.

Gazteak ahaldundu nahian, beraien ikastetxetan eman daitezken gatazka edota bestelako egoerak hobetu nahian, hitz egin eta erabakiak adosteko boterea emango zaie.



### Berrikuntza:

Ikasle-gazteei benetazko hitza eman nahian, beraientzat oso urruti geratzen zaizkien erabaki organoetara hurbilduko ditugu modu aktibo batean parte hartuz. Parte hartze honek, protagonista bihurtuko ditu eztabaidatu eta hartutako erabakiak bueltan gure erakundera ekarri eta garatzeko.

Protagonismo horretatik, egunerokoan bizi diren hezkuntza komunitateari zabalduko diote giroa, elkar-bizitza eta bestelakoak hobetu ditzazketen proposamenak aurkeztuz.

Gainera, inguruko gobernantza erakunde eta gazteen arteko "konexio" erreal bat bultzatzeko ideia ezin hobea dela sinisten dugu. Hauen, funtzionamendua ezagutzeko jarduera praktikoa aurrera eramanez. Orain arte egiten diren bestelako ekintza estatiko edota bisita instituzional formaletatik aldenuz. Gure gazteen gobernantza aktibotasun instituzional eta arduratsua landuz.



**Baliogarritasuna eta Transferentzia:**


Handia eta transferentzia oso modu errezan egin daitekena. Batetik, ideia zabaltzeko sortu dugun bideoa [https://www.youtube.com/watch?v=9ohRbFknLcA&feature=emb\\_logo](https://www.youtube.com/watch?v=9ohRbFknLcA&feature=emb_logo) erreferentzia izan daiteke bestelako ikastetxe eta erakundeek beraien errealitatean proiektu berbera edota kontestuaren arabera moldatutakoa, erreplikatu eta aurrera eramateko.

Edozein ikastetxek bere inguruan instituzio, udaletxe, aldundi, batzar nagusi edota bestelako gobernantza erreferente topa ditzake. Gure esperientzia adibide eta erreferente bezala hartuta, erakunde hoiengatik esperientzia egingarria dela berehala ikusiko dute.

Axular Lizeoan, **Ikaskuntza-Irakaskuntza prozesu zirkularra** deitu duguna.

Eman eta jaso, jaso eta eman. Filosofia hau belaunaldi ezberdinen artean zabaldu nahi dugu giza-inguruan eragin tangiblea izan dezan. Gure gazteek, kurtso goreneko ikasleek urtetako ikuspegia eta begiradaz baliatuko dira eta alderantziz, ume-gazte hauen freskotasunaz, ekintzaletasun eta bizitasunaz kutsatuko dira.

Lehen Hezkuntza 6. Mailatik hasi (10 urte) eta Batxilergoko ikasleak (18 urte) bitarteko 400 gazteengan inpakto zuzenda izan nahi duen pilotaje proiektua dugu hau. Behin eredu hau balidatuta, beste milaka euskal gazteengana iristea litzateke helburu.



### **Genero Ikuspegia:**

Bai hizkuntza trataerarekiko, baita genero ikuspegia zainduko da hauekiko gure hezkidetzan eta berdintasun planean jasota ditugun arlo guztiak pertsona guztien eskubideak bermatuz.

Gure ikastolaren, Axular Lizeoaren giza ikuspegi humanistari erantzunez, gure jaiotzatik egin dugun bezala PERTSONA erdigunean jarritz, ERRESPETOA, ZAINKETA eta BERDINTASUNA bultzaten jarraituko dugu oraingoan aurkeztutako proiektu honetan ere.



**Proiektuaren izena: GAZTE LEGEBILTZARRA 2019/2020**

**Laburpen Bideoa:** [https://www.youtube.com/watch?v=9ohRbFknLcA&feature=emb\\_logo](https://www.youtube.com/watch?v=9ohRbFknLcA&feature=emb_logo)

**Erakundea:** Axular Lizeoa

**Web Orria:** [www.axular.net](http://www.axular.net)

**Sare Sozialak:**



**Posta Elektronikoa:** [idazkaritza@axular.net](mailto:idazkaritza@axular.net)

**Tfnoa:** 943316066